


Nu!



Aginagan eta kaxkoan jokatuko da Santixabel Pilota Txapelketa



Zubietako Pilotalekua amaitu




Kultur Etxe berria martxan jarri



San Inazio kalea eta errotonda



Barrenkale eta Artzabalgo lokal erosketak



Potxoenea eraberritu



Zumartegiko parkea berregokitu

Aurten egin nahi diren inbertsio nagusiak

Herriko sagardoa orain,
ALKARTASUNA kooperatiban
eskuratzen duzue

*Iruin
Araeta
Saizar
Urdaira
Aginaga
Gorostidi
Aialde berri*

*Herriko sagardotegi
guzti-guztiak...*

Ugarte Industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

www.noaua.com

Informazio interesgarriena gure web gunean

Eguraldi iragarpena, lan merkatua,
hemeroteka, agenda, albisteak,
inkestak, foroak, osasun zerbitzuak,
NOAUA! aldizkaria...



eta orain,

edizio jarraitua.

OSASUN GIDA

FARMAZIAK

Oa farmazia
Homeopatia
Formulacion magistral

Isidoro Iturralde farmazia

Homeopatia
Formulacion magistral
Borda berri, 1 Telf: 36 33 95

MASAJISTAK

Kima masaje lekua
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behe, Lasarte-Oria, Telf: 36 61 97
Uma masaje lekua
Lepoko eta bizkarreko minak
Kirol masajea eta oinetako masajea
Kale nagusia, 10 - atzekaldea, Telf: 659 043 486



ODONTOLOGIA

Usurbilgo Hartz Klinika
Fernando Perez-Mosso Nenninger
Antonio Bernal Ruiz de Oña
Kale Nagusia, 2 1.C4 - Telf: 37 08 78

LOGOPEDAK

Logopeda zerbitzua
Ilizkuntz arazoak
Zentzumen arazoak
Ahots arazoak { noduloak
Disfonia

Mobila: 679 660 919

KIROLA

Usurbilgo kirol patronatua
Ikastaroak { igerilekua
gimnasioa
Zerbitzu pertsonalizatuak
Masajeak
Oiarde kiroldegia, Gemika ibilbidea, 9

Txirrikitutik

Oraingo honetan aukeratu dudan argazkia ez da horren zaharra, duela zortzi urte atera baitzen, 1996ko urriaren 13an hain zuzen ere. Bertan Arrillagatxiki baserria erabat kiskalia ikusi dezakegu. Baserria 1996ko uztailearen 19an erre zen. Jaso dudan informazioaren arabera, sua goizeko bost'erdia inguruan piztu omen zen eta hau itzaltzeko asmotan Donostiako suhiltzaileak, Hernaniko Ertzaintza eta Usurbilgo udaleko Udaltzaingoa gerturatu ziren. Zoritxarrez iritsi zirenerako suak baserri guztia hartua zuen eta ezin izan zuten ezer egin.

Arrillagatxiki argazkian ikusten duzuen moduan geratu zen: tristuraz beterik. Baserria teilaturik gabe dago, eraikineko lau ormak zutik dituela. Arrillagatxiki baserria XVI. mendeko eraikuntza zen, eraiki zenetik aldaketa handirik gabe mantendu zena. Eraikineko ezaugarri aipagarrienak hauexek dira: jatorrizko hormak, dobelarrez egindako arku harlanduak, eta jatorrizkoa zen zurezko egitura dotorea.

Baserriaren atzean, berriz, Aginaga auzoa ikusi dezakegu, Oria ibaiaren inguruan dagoen erribera ikusgarriare-



Egile ezezaguna, 1996.09.13, Noaua! Kultur Elkarte
Arrillagatxiki baserria, Aginaga

kin. Nahiz eta beranduago baserri gehiago erre direla jakin, espero dugu etorkizunean horrelako gertakizun tris-teak ez gertatzea.

Zalao Arnaiz Ibareguren

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteke egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainar Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, NEREA ZINKUNEGI _____ 4. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. URR.

INAUGURAZIO EKITALDIA UDALAN _____ 10. URR.

INBERTSIO UGARIKO URTEA _____ 12. URR.

LANDARE BEREZIEN II AZOKA _____ 14. URR.

Aiako Iturrarango Lorategi
Botanikoan, Landare Berezien
Azoka egingo da apirilaren 3an



SANTIXABEL PILOTA TXAPELKETA _____ 16. URR.

ARETO FUTBOL TXAPELKETA, HASTEAR _____ 17. URR.

“GIPUZKOA ZURE ESKU” MAHAI-JOKOA _____ 18. URR.

EKITALDI GARRANTZITSUENAK _____ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

AZALA

Egitasmo ugari bideratu nahi ditu udal gobernuak.

Ramon Agirrek "Zazpi gezur txiki" antzezlan eskainiko du apirilaren 24an, Udarregin

Herri honek duen antzerki gosea agerian utzi genuen "Kutsidazu Bidea, Ixabel" antzezlan ekarri genuenean. Horregatik, beste antzezlan bat antolatzea otu zaigu: Ramon Agirre eta Joserra Senperenaren "Zazpi gezur txiki" izeneko. Saioa doanekoa izango da eta 22:30etan hasiko da. Ekitaldi hau Usurbilgo Udala eta Kutxarekin batean antolatu dugu.



DUELA BI URTE "ONDO ESAN BEHARKO" ANTZEZLANA ESKAINI ZIGUTEN. AURTEN "7 GEZUR TXIKI" MUNTAIAREKIN DATOZ.

Udalekuak begibistan

Azken urteotan, Udako Kanpaldiak antolatu ditugu zenbait euskarra talde eta kultur talderekin batera. 2004ko udalekuak martxan dira jada. Honakoan, hiru dira antolatu diren txandak:

1- Bernedon, uztailaren 11tik 19ra. LH3, 4 eta 5ekoentzat txanda bat. Matrikula: 210 euro.

2- Zangotzan, LH6 eta DBH1 eta DBH2koentzat txanda bat. Uztailaren 2tik 11era. Matrikula: 240 euro.

3- Adoainen, uztailaren 2tik 14ra, DBH3 eta DBH4koentzat txanda bat. Matrikula: 250 euro.

Matrikulazioa osatzeko epea: apirilak 28, osteguna. Matrikulatzeko garaian erdia ordaindu beharko da eta gainontzekoa ekainaren 11 baino lehen. Informazio gehiago, NOAUA!ko egoitzan.

Matrikularen barruan honako sartzen da: aterpetxea eta janaria, garraioa, materiala, ekintza guztiak, aseguruia, begiraleen eta koordinatzaileen ordainketak...

Apirilaren 24a arte atzeratu dugu NOAUA!ko Batzar Orokorra

Hamaiketakoaren formula-renak egin du. Jada ez da erakargarri. Martxoaren 27an NOAUA!ko bazkide guztiok hitzordu garrantzitsua genuen. Urteko Batzar Orokorra ospatzeko deia egin genuen, baina zuzendaritzako kideak baino ez ginen azaldu.

Honen aurrean, Batzar Orokorra apirilaren 24a bitarte atzeratzea erabaki dugu. Gai-zerrenda bere horretan mantentzen da, azken puntua izan ezik (hamaiketakoarena). Izan ere, apirilaren 24an arratsaldean bilduko gara, 18:30etan, Udarregi Ikastolako gela batean. Eta batzarraren ostean, denak antzerki saiora!

Kazetari zein komertzial lanak betetzeko lan-deialdia

Egun erdiz arituko den langile bat kontratatzeko lan-deialdia egitea erabaki berri du NOAUA! Kultur Elkarteko zuzendaritza batzordeak. Iaztik, publizitateaz arduratzen zen langile bat genuen, lau orduko lan-saioarekin. Baina 2003an langile aldatuak izan dira, eta elkartearen beharrek bestelakoak dira.

Hori dela eta, lan deialdi berri bat egitea erabaki du NOAUA!ko Zuzendaritza Batzordeak. Langile berria lau ordutan arituko da eta orain arteko publizistaren lanpostua ordezkatuko du.

FUNTZIOAK:

A. NOAUA! hamaboskariko eta web

guneko komertziala.

Eginbehar nagusiak: publizitate lortu, publizitate moduloak diseinatu eta fakturazioa egin.

B. Kazetari-laguntzailea.

Eginbehar nagusiak: aldizkarirako eta web gunerako albisteak landu eta argazkiak atera.

PROFILA:

. Kazetaritzan edo publizitatean lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere), edo informazio zientziekin lotura duen lizentziaturaren bat edo ikasketaren bat duena.

- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.

- EGA edo baliokidea den agiria izatea.

- Gida baimena izatea baloratuko da.

- Komunikatzaile ona eta teknologia berrietan trebatua izatea.

ZER ESKAINTZEN DA:

- NOAUA! hamaboskariko publizitatearen arduradun izatea.

- Lau orduko lan-saioa gizarte segurantzarekin, gehi komisioak.

Curriculum-a apirilaren 11a baino lehen ekarri edo honako helbideetara bidali:

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

Edo postaz bidali:
NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 Z/G
20170 USURBIL



ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Torre Jauregiko teilatua konpontzen

Ziur aski, lerro hauek irakurriko dituen gutxik ezagutuko du Txokoalde auzoko Torre Jauregia barrutik. Eraikuntza honek 37 urte inguru daramatza hutsik, alegia, inor ez da bizi izan bertan 1967. urtetik. Guztiok dakigu inor bizi ez den etxea zahartu eta itsusitu egiten dela eta horixe pasa zaio honi ere, horrenbeste urteren buruan, zenbait konponketa txiki egin badira ere (sarrailak, ituteak, etab.) zahar itxura hartu du. Hala ere, oraindik hara inguratzen den orok sumatu dezake etxe horrek garai batean zuen bizia, koloreak, alaitasuna eta nola ez, elegantzia.

Ni, bizpahiru aldiz sartu naiz etxe horretan eta liru-tatuta gelditu naiz guztietan, izan ere, leihoetako kورتina luze eta atertziopeletuak, alfonbra luzeak, eserleku estanpatuak, egurrezko eskilara zabalak, neskameen pasabide ezkutatuak, lanpara ederrak, altzariak, aspaldiko lisagailuak, etabar luze bat ikusgarriak dira. Nik uste, hura ikusi gabe zaila dela nolakoa den irudikatzea. Xarma berezia dauka.

Horrez gain, zelai eta jardin oso politak dauzka inguru guztian. Jardinetan oinez paseatzeko bidetxo guztiak daude harrিতxo txiki politez eginak eta ezker eta eskuin aldean ura joateko kanaltxo txikiak dauzka, oso

ongi eginak haiek ere, harriz, bidea bezala. Jauregian jendea bizi zeneko garaia imajinatzen jartzen naizenean, kolorez beteriko zelaia ikus ditzaket, zuhaitz sendo eta garaiekin, arrosa gorri zein horiekin, burdinezko eserleku ugariekin nonahi eta ezin ahaz dezakegu Oria ibaiarekin bat egiten duen errekatxoaren sorrera lekua, Ama Birjinaren irudi bat zaindari duela.

Aste honetan, konponketa batzuk egiten hasiak dira teilatua, izan ere, ura sartzen da barrura eta teilatuaren aleroak erortzen hasiak daude. Hala eta guztiz ere, nire ustez etxe honen jabeek palazio honekin egin dezaketen gauzarik zentzuzkoena, saltzea litzateke eta erosten duenak hotelen bat edo jatetxeren bat jartzea. Dituen jardin eta zelai handiak garai batean bezala lorez beteko balira, inguruetako tokirik politena bihurtuko litzateke ziurrenik. Kontua da ez dutela saldu nahi, beraienak diren inguruko zenbait etxe bezala. Ez dute ezer saldu nahi baina ezta obrarik egin nahi ere.

Obrez ari garela, Guardetxean instituzioren bat eraikitzeko ideia dutela eta Zumeta Jatetxearen aurreko aparkalekuetan zuloa egin dute Guardetxeraino ur-bidea egiteko hodiak pasa ahal izateko. Errementaldegi baserrian ere obretan ari dira.

Pilota noraezean darabilgunean




ENEKO
HARREGUY

Kaleberri

Oso ondo. Honek pilota partida bat dirudi. Nik zuri botako dizut pilota, baina ahal izanez gero, ez jasotzeko moduan. Eta zuk niri ere, pilota ez jasotzeko moduan pasatzen badidazu, hobe, ezta? Hobe, horretarako, frontoira joaten bagara!

Kasu honetan, eta ni pilotazale amorratua naizen aldetik, nahiago dut hondartzan jokatzen den pilota-jolas horretan aritu; alegia, nik pilota pasako –eta ez botako– dizut, baina zuk altxatzeko moduan, eta era berean, zuk niri pilota itzuliko didazu, baina, era berean, zuri moduz itzultzeko gisan. Ulertzen? Elkar lan eginez, ahalik eta pilotakada gehien ematera, eta alderantziz. Frontoia vs hondartza, bai?



Irakasle eta gurasoek sarritan jokatzen dute kirol honetara. Eta ikaslea bera da kirol-tresna, esan nahi baita, pilota. Irakasle askok gurasoei botatzen diete bipareta-koa, eta gurasoek, ahal badute, zabalean egindako dejada batez erantzungo diote, irakaslea ez iristeko moduan. Biek ala biek

kendu nahi dute pilota gainetik. Eta pilota, jaberik ez, noraezean ibiltzen da, eta zikindu egiten da, eta busti, eta... inor ez al dago pilotari seboa nola haurrari hala laztanduko dionik?

Zergatik ez dugu kirol-tresna berberekin jolasaz aldatzen? Zergatik ez dugu elkar egin, eta ahaleginik handienak egiten pilota lurrera eror ez dadin? Elkar lagundu pilota jasotzen!?

Atallu, lurrak hitz egingo balu

Aurtengo udaberri hasiera honi, neguaren azken astinduz eman behar izan diogu, baina hemendik aurrera eguzkiaren gorantzako joerarekin udaberria gailenduko da. Egutegia beharrik ez duen izadia ikusi besterik ez dago: lozorroan zeuden zuhaitz landare gehienak hosto berritzen eta batzuk loratzen, eguzki printzen bidez indartzen doazen belardiak, txorien harreman eta kabia egiteko lanak... Udaberria esnatzen hasi da, gu ere mugitzen hasi garen bezala, neguko atsedenaldiaren ondoren, baratza eta soroak lantzen hasi gara. Eguraldiari so eginez, lurra girotu eta patata, piperrak, letxuak landatu, ziklo berriari hasiera emanez. Ziklo hau, ordea, ez da gehiago beteko Atalluko industrial gune berrian. Duela lau urte sartu ziren "eskabadorak" Gipuzkoa osoko lurrik emankor eta lane-



rako egokiera onenatarikoak diren lur hauetan. Arazoak arazo, irtenbide ilun horretan argi izpiak ikusten hasi omen gara.

Industrial gune hau beharrezkoa omen genuen... ez ote gara lur hauetaz sekula behartuko.

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

Aste Santua gainean

Berriz ere hemen nauzue tartetxo honetan, eta nahiz eta udaberriari sartuta izan, eguraldi aldetik negua dirudi: hotza eta euria ditugu nagusi, mendiek ere elurra dute urruti gabe eta ondorioz etxerako eguraldia aukeran dugu. Erlojua ere, ordu bat aurreratu egin berri dugu, eta Aste Santuan sartuko gara bete-betean, bera prestatzen hasiak gara. Batzuk, kanpora joateko asmoarekin; eta besteak, bertan geldituko gara. Elizkizunetara hurbildu edo eguraldiak lagundu ezker, bueltatxo bat eman mendi aldetik edo kostatik.

Nik Galiziatik egin dut bueltatxo bat, aste bete izan da, eta ahaztu ezina izango da boladaxto batean bertan ikusitako edertasuna. Eguraldi aldetik zorte handia izan dugunez, kostaldeak, bere koloreak disdira handiz erakutsi dizkigu. Bertako itsaski mota desberdinak eta bertako aberastasuna paregabea iruditu zait. Natura aldetik, magnolio zuhaitz dotoreak, azalea, lima arbolak, tilak eta eukaliptus ugari ikusi



ahal izan ditugu bertan.

Santiago Konpostela donearen katedrala jendez gainezka, Jubileo Santuaren urtea dela eta. Bazter desberdinetako peregrinoz beteta ikusi nuen. Galiziako arzobispoak eskeini zuen mesa santua eta, ondoren, *botafumeiro* izenekoa jarri zuten din-danean eta bertan hurbilduta ginen guztientzat oparitu zuen intxentxu gozoa.

Atxegalde



MARIA
JESUS
URBIETA



**PAKO
AGUDO**

Santuenea

Lapurreta Zahar Egoitzan

Kaixo! Hemen nauzue Santueneako berriak zuenganatzeko prest. Oraingoan ez dira berri oso onak, beti gaude gure auzoan zerbait gertatzeko zain zuenganatzeko, baina espero dut modu honetako berri gehiago ez izatea.

Martxoak 21-22 arteko gauan, gure Zaharren Egoitzan lapurreta izan genuen. Arduadunekin hitzegiteko aukera izan dugu eta beraiek argitu digute gauzak nola gertatu ziren.

Badirudi lehia bat puskatu eta bertatik sartu zirela, aurretik alarma puskatu zutelarik. Behin barruan, telebista, "canal satellite"-a, tabakoa eta balioa zuten gauzak eraman zituzten. Tabernako dirua eta loteria zorionez arduradunak etxera eraman zuen bezperan. Ez, ordea, Zaharren Egoitzako bulegokoa, bertako atea puskatu eta hortik bai dirua eraman zutela.

Ertzainak etorri eta atestatua egin ondoren ez dago ideia askorik lapurretaren egileaz. Hori bai, ezezagun den jende kopuru igoerak alarmak piztu du auzo honetan. Denak dakigu gure auzo lasaian azken bolada honetan aldaketa ugari izan direla eta lehen gure artean konfiantza zena orain askotan bel-

durra izaten da.

Horregatik, agian, gertaerak izan zirenean inork ez zuen ezer ikusi edo entzun, baina, badirudi denbora pasa ahala, zenbait bizilagunek onartu dutela goizaldeko 04:00ak inguruan zaratak entzun zituztela. Zer egin kasu honetan? Niretzat argi dago, beldurra baztertu eta salatu, agian hurrengoan zure etxera sartzen dira eta zure bizilagunak bapatean itsu eta mutu gera daitezke.



Lau hankako lagunaz libratu nahi eta...



**NEREA
AIZPURUA**

Urdaiaga

Agur bero bat denei San Esteban alde honetatik! Gure auzo honetan berri handiegirik izaten ez den arren, oraingo honetan txakurren abandonuaz hitz egitea bururatu zait. Orain gutxi, txakur bat azaldu zen gure etxe inguruan eta hasiera batean inguruko txakurren bat zela pentsatzera heldu ginen arren, egun batzuen buruan, txakur hura abandonatua izan zela ohartzeko aukera izan genuen.

Tamalez, ez da lehena izan eta ez azkena izan ere!

Gure parkeko ingurunean eta auzoan bertan jende gutxi ibiltzen dela aprobetxatuz, hainbatek txakurra bertan utzi eta alde egiteko aukera ezin hobea ikusten dute nonbait. Asko eta asko, oporretara doazela eta txakurrak "enbarazu" egiten diela eta, beren lau hankako laguna kale baz-



terrean uzteko gai dira.

Beste hainbatek, txakurrak libratu nahi izan eta kalean uzten dute; modu honetara txakurrak kargu berau egin beharrean, udala egiten delarik.

Guзtiok ere animaliak atsegin ditugun arren, etxean bat izateak ere baditu bere alde txarrak eta bere bete-beharrak ere... baina guztiak omen du

alde onen bat eta alde txarren bat! Bestalde, norbaitek oporretara joan nahi eta txakurra non utzi ez badaki ere, badira txakurrentzako egoitzak; "Zuhaitz-pe" txakurtegiak ere, aukera hau eskeintzen du.

Eta gaurkoz besterik ez. Azken egunetako eguraldia ikusita, ea udaberriko lore usaina eta egun epelak noiz heltzen diren gurera!

Hurrengora arte!

Gertakizuna Ertzaintzarekin

Joan den urteko martxoaren 16an, larunbata, gertatutakoa kontatuko dizuet honakoan. Arratsaldeko 20:00etan, Matia Hospitaletik netorren nere 600an etxera bidean, eta Añorgan Ertzaintzak gelditu egin ninduen. Dokumentazioa egunean al neukan galdetu zidaten eta erantzuna baiezkoa eman nien. Orduan paper guztiak erakusteko eskatu zidaten eta baita gida baimena ere. Denbora pixka bat eman zuten dena begiratzen eta ITVa abendutik pasa gabe neukala esan zidaten eta isuna jarri behar zidatela (11.200 pta ordukoak), hamar egun nituela eta bueltatuko zidatela dokumentazio guztia.

Konturatu nintzen gidatzeko baimena ez zidatela eman, baina ez nuen ezer txarrik pensatu. Zein izango da nire "sorpresa", isuna ordaindu ondoren ez zela azaltzen nere gidatzeko baimena. Joan nintzen segituan

Antiguako komisaldegira eta beraiek ez zirela izan esan zidaten, Oiartzungo trafikoa deitu edo hara joan beharko nuela. Nere haserrea areagotu egin zen, ezer moldatzeko asmorik ez zutela eta telefono zenbaki bat zuen txartel bat eman zidatenean. Asteazkenez deitu nuen eta astelehenean bidali zutela erantzun zidaten. Hamabost egunetara deitu arren, erantzun berarekin nengo: "azalduko da".

Urte bete pasa da eta oraindik azaldu gabe jarraitzen du. Bitarte honetan bi bider deitu zuten Mikel udaltzainak ere, inongo arrastorik lortu gabe. Bertara joan eta 2 ordu eta erdi pasa ondoren, paperak bete eta nahastu ondoren, pasa den astean berria atera behar izan dut.

Konklusioa: zer autoridade eta errespetu dauka urte bete osoan beraien errua zuzentzeko ez deitu ez idazten duenak?

Aginaga



MARIA
ANGELES
ARRUTI

Errauste planta Zubietan?

Orain dela gutxi izan den errauste plantaren gaineko hitzaldiak kezka harrotu ditu bazterrotan. Espero zitekeen. Harrotu ditu, halaber, harantzaxeago, Urnietan, eta zertxobait haratago, Bidasoa aldean. Gure ondo-ondoan, Lasarte-Oriakoak ere iritzia plazaratzen ari dira pankartak: Ba al dakizu zer den errauskailua?

Kontua da inork ez duela nahi ditxosozko planta inguruan. Beren onurak erdizkako egiak direlako, eta kalteak agerikoak (hamar kilometroko erradioan ditu eragin kaltegarriak). Aire zikintzen du, eta haizeak zikinkeria zabaldu. Hori bai, neurrian egiten omen du, filtroak eta horretarako direlako. Ez digute beharbada esango horren kontrola eramatea garestia dela, eta zorrotz ez dutela neurtuko zer botatzen duten airera eta zer ez...

Beste hainbeste errautsekin. Aurkitu beharko da nora bota. Gainera errauts horietako batzuk oso kaltegarriak dira... Hala ere -hau ere esango digute, noski-, San Markos bezalakoak okerra-

goak dira, eta zaborrak ez dira izkutatuko nolana...

Eta egia da; ez diegu arrazoirik kenduko. Baina ixilik geratu ere ez: badago zaborrak bestela tratatzea. Eta beste zenbait lekutan horretan ari dira: zaborra gutxitzen, materiala berrerabiliz eta berreskuratuz, konpostatuz... Hartara, benetako zaborrak, botatzeko lirakeenak, oraingoan aldean, gutxi batzuk besterik ez lirake izango.

Honetara etorrita, zubietarrak mugitzen hasi gara. Beste batzuk egin duten bezala guk ere ez dugu nahi errauste planta, ez hemen, ez beste inon. Horretarako bilera antolatu du Herri Batzarrak hurrengo larunbatean, apirilaren 3an, Eskola txikian, arratsaldeko 5etan. Animatu zaitzte eta azaldu. Ea hemendik aurrera gure iritzia azaltzen dugun. Gure txikian, bai, baina bafleekin, entzun gaitzaten. Eta besteekin batera! Asko baikara gauzak bestela egin daitezkeela uste dugunak.

Zubieta



PELLO
ARANBURU

Inaugurazio-ekitaldia Udaletxean

Tempe l'oeil ikastaroa bukatu zuten lagunek ikasitakoa praktikan jartzeko aukera paregabea izan dute. Abendutik hona, Udaletxean zenbait pintaketa egin dituzte. Margo ikusgarriena, agian, Usurbilgo Udaletxeko eskailera nagusikoa izan daiteke. Pintaketa lan honen izaera berezia denez, ikasleen lana ezagutzera emateko inaugurazio ekitaldia egin zen lehengo astean.

Luis Mari Ormaetxea alkatearekin batera, hainbat zinegotzi izan ziren inaugurazio ekitaldian: Julian Beraetxe eta Joxe Mari Zubiria (EAJ-PNV), Manuel Michelena (PP), Enriqueta Rodriguez eta Amaya Goyaran (PSE-EE). INEMeko ordezkariak, Josune Mujika udal enplegu teknikariak eta pintura ikastaroan aritu diren ikasle eta irakasleek ez zuten hutsik egin. Hamaiketakoarekin bukatu zen ekitaldia.



PINTURA IKASTAROKO IKASLEEN LANA EZAGUTARARI ASMOZ EGIN ZEN INAUGURAZIO EKITALDIA.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko deialdia

Usurbilgo etkez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketa emakida administratiboaz esleitzeko lizitazioari buruzko iragarkia argitaratu du Gipuzkoako Boletin Ofizialak. Kontratuaren iraupena urte betekoa izango da. Hala ere, kontratuaren indarraldia urtez urte luzatu ahal izango da, gutzira beste hiru urte

gehiago, orokorrean lau urte bete arte. Kontratuaren prezioa, orduko, lanegunetan 14,80 eurokoa izango da; eta jai egunetan 15,55eurokoa, B.E.Z.a, industri-onura, eta, orokorrean, gastu guztiak barne direlarik. Informazioa eta agiriak, Usurbilgo Udalean. Eskerak aurkezteko azken eguna, apirilaren 5a.

HITZARMEN SINAKETA

Apirilaren 2an, eguerdiko ordubatean, Jexux Artze Taldearekin hitzarmena sinatuko du Udalak. Hitzarmenaren helburua Jexux Artze Taldeak Udalarari "Ez dok Amairu" erakusketako ondareak eta Xabier Lakaren eskultura ematea eta emate honen baldintzak arautzea da. Honen truke, Udalak ondareak egoki zaindu eta erakusketa beste hainbat erakundetara eramateko konpromisoa hartuko du.

PANTEOIAK HARTZEKO ESKAERAK

Lurrazpiko hilobiren bat eskuratzeko Lasmoa duten herritarrek, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 26 egun naturaleko epea dute eskaera aurkezteko. Eskaera-orriak Udaletxean eskura daitezke. Eskatzen den hilobi bakoitzeko 42,07 euroko bermea jarri beharko da. Hilobiak 50 urteetarako utziko dira eta bakoitzaren prezioa 2088,66 eurokoa da, beraz, 6 hilobiko panteoi osoak 12.531,96 euroko prezioa du, Udalak onarturiko 2004ko Ordenantza Fiskalekin bat etorritz.

DIRULAGUNTZA NOAUA!RENTZAT

Arrakasta handia izan zuen "Kutsidazu Bidea, Ixabel" antzezlanak. Erronka ez zen makala, eta hala ere, jendeak ondo baino hobeto erantzun zuen. Dena den, finantziarioari aurre egiteko, NOAUA!k 1.000 euroko dirulaguntza eskaera egin zuen. Jaso berri dugun jakinarazpenak dioenez, Udala antzerki emanaldia antolatzeke dirulaguntza ematearen alde azaldu da. Elkarrekin eskerrak eman nahi dizkie antzerki saiora etorri ziren lagun guztiei eta baita Udalarari ere.



MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Etz st k l , 3
Tlf 33 11



TXIRIBOGA

TABERNA

ntx k, k t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

Pintura dekoratzailea eta "trompe l'oeil" ikastaro berria apirilean hasiko da, Aginagako tailerrean

Margolana gustuko al duzu? Pintura dekoratzailearen berri ba al duzu? "Trompe l'oeil" estiloa ezagutzen al duzu? Hala bada, akaso interesgarria egingo zaizu antolatu berri den ikastaro berria. Aginagako pintura tailerrean egingo da ikastaroa eta Aste Santuaren ostean hasiko da. Informazio gehiago Udaletxeko enplegu bulegoan jasoko duzu.

Apirilaren 19an hasiko da ikastaroa. Azaroaren 10a bitartean, Aginagako pintura tailerrean garatuko da ikastaroa, goizeko 8:30etan hasi eta 13:30ak bitartean. Udalak antolatu du ikastaroa, INEM eta Europako Gizarte Fondoaren laguntzarekin.

Ikastaroa bukatu ondoren, ikasleak pintura lan ezberdinak egiteko gai izango dira, eta hori guztia teknika piktoriko desberdinen ikasketa praktikoarekin osatuko da.

Betebeharrak


Lanbidea gustuko duen edozein adinetako emakumezko edo gizonezkoei zuzendua. Hautaketa elkarrizketa pertsonala bidez egingo da.

Irakaslegoa

Xiker Goikoetxea (ikastaro guztia)
Victor Goikoetxea ("Trompe l'oeil")
www.victorgoikoetxea.com

Ikastaroa

Apirilak 19-azaroak 10, Aginagako tailerrian.



IAZKO IKASTAROKO IKASLEEK USURBILGO UDALETXEA MARGOTU BERRI DUTE.

IKASTAROKO EDUKIAK

- Lanaren antolaketa, 40 ordu.
- Lokatuak eta esmalteak, 40 ordu.
- Euskarrien azalaren prestaketa, 110 ordu.
- Imitazioak, 135 ordu.
- Pintura plastiko eta tenplearen aplikazioa, 35 ordu.
- Beste teknika dekoratzaileak, 58 ordu.
- Barnizatuak, 30 ordu.
- Estukoak, 95 ordu.
- "Trompe l'oeil", 57 ordu.

Eskabideen aurkezpena

- Apirilaren amaiera bitarte

Informazio gehiago

- Lasarte-Oriako Enplegu Bulegoan
- Uurbilgo Udaletxean (943 37 19 51)

TABERNA-JATETXEA NTXET

EGUZKITZ, 2.17 CSU II.
TEL. 3 37 3

- E u n r k m n u k
- t r t k k
- l t r K n n t u k



Kafe berezia!

San Esteban kalea, 8

Telf: 943 36 27 70

UDAKO KANPALDIAK 2004

HIRU TXANDA:

- 1.- Bernedon, uztailaren 11etik 19ra. LH3, 4, 5. Matrikula: 210 euro.
- 2.- Zangotzan, Uztailaren 2tik 11era. LH6, DBH1, DBH2. 240 euro.
- 3.- Adoainen, uztailaren 2tik 14ra. DBH3, DBH4. 250 euro.

IZENA EMATEKO EPEA:

- 1.- Apirilak 28 osteguna. Informazio gehiago NOAUA!ko bulegoan.

IZENA EMATEKO ORRIA

N u /

Izen-abizenak: _____

Telefonoa: _____ Helbidea: _____

Ikastetxea: _____ Maila: _____

Gurasoen sinadura: _____

Inbertsio ugari urtea

Aurrekon zenbakian, udal aurrekontuen igoera azaltzen saiatu ginen. Honakoan, 2004ko inbertsio nagusiak ezagutarazi nahi ditugu. Inoizko handiena izango da aurten aurrikusi den inbertsio-partida, 6.000.000 eurotik gorakoa. Proiektu batzuk aurreko legealditik datoz, beste batzuk lan-talde berriak zehazturikoak dira. Batzuk eta besteak, aurten burutu nahi diren inbertsio nagusiak. Aipagarrienak, hauexek.

Udaletxetik hasiko gara. Jakingo duzue, Udal Liburutegia Kultur Etxe berrian ipiniko da. Egun liburutegia dagoen tokian, Sarrera/Erregistroa eta Idazkaritzaren bulegoa ezarriko dira. Hirigintza bulegoa txikia geratzen ari zen, eta Idazkaritzak libratuko duen

tokia Hirigintzak bereganatuko du.

Artxibo Historikoa egun ganbaran da. Gehiegizko pisua du eta udal eraikina arintze aldera, Potxoeneako bi planta artxiboa jasotzeko egokituko dira. Beheko solairuan, Soziokultura Sustapen Zerbitzua arituko da lanean.

Kulturarekin jarraituz, Villa Pilar etxea berritzeko proiektua egingo da aurten. Gainera, keramaika tailerra Udarregi Ikastolara pasako da eta leku hori Zumarte Musika Eskolak bereganatuko du. Matrikulazio-kopurua asko igo da azken boladan eta, era honetan, Musika Eskolak duen leku premia asetu nahi da.

Hirigintzan, Zubieta izango da onuradun nagusia. Pilotalekuaren lehen ordainketa egingo da aurten. Elizaren atzean 16 etxebizitza eraikiko dira, horietatik 8 babes ofizialekoak (lau Usurbilgo

Udalak zozketatu ditu, beste lauak Donostiak).

Kulturgintzarekin batera, **Zerbitzuak-Obrak** saila da inbertsio gehien eragingo duena. Nabarmenezkoa da San Inazio Kalea berregokitu eta errotonda egiteko proiektua. Halaber, Eguneko Zentroaren ingurunea urbanizatu nahi da; Santuenetik Urdaiaga auzora doan bidea argiztatu; Zumartegiko parkearen zorua berritu... Eta **Gizartekintzan**, bi dira 2004ko proiektu izarrak: Haur Eskolako parkea egokitu eta Artzabal Baserria Zahar Egoitzan bilakatu. Horretarako, proiektu bat idazteko deialdia egingo du Udalak.

Udal web orrialdea martxan jartzeko 10.000 euro aurrikusi dira; eta Arau Subsidiarioak udal-gobernu berriaren irizpideetara egokitzeko diru partida 80.000 eurokoa izango da.

Aurtengo aurrikuspenak !



Hirigintza. Bi lokal erosiko ditu Udalak: Barrenkalen bat (267.000 euro), Artzabalen bestea (47.710 euro).



Hirigintza. Zubietako pilotalekua. Hiru urtetan egingo da ordainketa, lehen zatia, 2004. urtean (186.000 euro).



Zerbitzuak-Obrak. San Inazio kalea egokitu eta errotonda berria erakiko da (474.000 euro).



Zerbitzuak-Obrak. Eguneko Zentro-inguruak berritze-premia du. Aurten egin nahi da obra hori (19.500 euro).



Zerbitzuak-Obrak. Santuenea-Berri-tzagoiena bidearen argiztapena. Urdaia-go kronisten aldarrikapena beteko da.



Zerbitzuak-Obrak. Zumartegiko parkea berritzea. Euriarekin sortzen diren putzuak sahiestu nahi dira (90.000 euro).



Hezkuntza. Villa Pilar eraikina berritu egingo da (18.000 euro). Keramika tailerra Udarregi Ikastolan ipini eta leku hori Zumarte Musika Eskolarentzat berregokituko da. Agerialdeko eraikinean, berriz, igogailua jarriko da (90.000 euro).



Nekazaritza. Bide hobekuntzak egiten jarraituko du Udalak. Mapil eta Lertxundi bitartekoa (15.000 euro) eta Arratzain-Artikula bidea (27.000 euro). Herri bideen inbentarioa ere egingo da (19.800 euro).



Gizartekintza. Haur Eskolako parkea, bereziki zorua, ez da jolasean ibiltzeko egokiena. Aurten berritu nahi da eta jada onartu da diru-partida: 12.600 euro.



Gizartekintza. Zahar Egoitza berri bat eraiki nahi da Artzabalgo baserrian (aurreko legealdian, Sagardo Museoa eraiki nahi zen bertan). Aurten proiektua idatziko da (30.000 euro).



Kulturgintza. Soziokultura Sustapen Batzordearen egoitza izango da Potxoenea. Proiektuaren egokitzea, obra zuzendaritza, eraikineren eraberritzea eta ekipamendua zehaztu nahi dira aurten.



Kulturgintza. Kultur Etxe berria urte amaieran inauguratu nahi da. Azken ordainketa aurten egingo da (518.000 euro). Ekipamenduen gastua ere aurten egingo da: 285.000 euro.

Hastear da Landare Berezien Bigarren Azoka, Iturrarango Lorategi Botanikoan

Apirilaren 3an eta 4an, Iturrarango Lorategi Botanikoan, Landare Berezien Bigarren Azoka ospatuko da. 33 mintegizalek jada zihurtatu dute euren partehartzea. Kontinente guztietako landareak ikusi eta, hala nahi izanez gero, salneurri paregabean erosteko aukera edukiko dugu. Horietako asko gure artean landare ezezagunak badira ere, arazorik gabe lorategietan edo etxeko lehioetan zaindu ditzakegu.

Azoka ingurune paregabe batean kokatuko da, Aian dagoen Iturrarango Lorategi Botanikoan, landareak ezagutu nahi dituzten guztientzat interes handienekoa hain zuzen.

Azokan bertan goserik ez pasatzeko, inguruko produktu desberdinak erosteko aukera izango da edota, hala nahi izanez gero, lorategiko ibilbideetatik paseatzeko aukera. Haurrentzat, jolasteko gune eder bat ere aurkituko duzue.

Euskal Herrian dugun natura ingurune ederrenetako batean ordu eder

batzuk igarotzeko aukera dago, beraz, azoka honetan.

Aparkaleku ugari

Antolatzaileek Parkearen inguruetan hainbat aparkaleku ipiniko dituzte. Hauetatik, etenganbeko autobus zerbitzua izango da, doan, bisitari guztientzat.

Azokako ordutegia hauxe izango da: goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte.

Sarrerak: sarrera-prezinoa 3 eurokoa izango da (12 urte edo gutxiagokoak doan) eta azokaren atarian egongo dira salgai. Prezio honen barne:

- Aparkalekuetatik azokagunerainoko autobusezko joan-etorria.
- Erositako landareentzako kontsigna zerbitzua eta eroslearen ibilgailuraino garraioa.

Animalientzat egokituta

Azokarako egokitutako gunean gidariak diren txakurrak bakarrik onartuko dira. Gune honetatik at, txakurrak lotuta eraman beharko dira.



AZOKA GOIZEKO 10:00ETAN IREKIKO DA ETA ARRATSALDEKO 18:00AK ARTE IZANGO DA ZABALIK.



KONTINENTE GUZTIETAKO LANDAREAK BILDUKU DITU AIAKO ITURRARANGO LORATEGI BOTANIKOAK.

Zumartekoen kontzertu didaktikoa

Urtero legez, Zumarte Musika Eskola kontzertu pedagogikoak eskaintzen aritu da. Oraingoan, Andoaingo Udal Musika Eskolarekin batera aritu dira. Lehen saioa, Andoaingo Basteron izan zen, martxoaren 23an hain zuzen. Bigarren kontzertua, etxean eskaini zuten, Udaregi Ikastolako aretoan. Usurbilgoan talde hauek aritu ziren: Andoaingo Musika Eskolako Talde Instrumentalak, Andoaingo Musika Eskolako Eskusoinu Taldea, Andoaingo Musika Eskolako Musika Modernoko Taldea, Zumarte Musika eskolako Alboka Taldea, Zumarte Musika eskolako Musika Modernoko Taldea, Zumarte Musika Eskolako Talde Instrumentala.



ANDOAIN ETA USURBILGO IKASLEAK BILDU ZIREN UDAREGI IKASTOLAKO ARETOAN.

Familia euskaldunak behar dira

Uda bizikletan ibiltzeko garaia dela diote. Baita beste mila gauza egiteko ere; euskara ikasi, adibidez. Gero eta gehiago dira oporretan euskaran murgiltzeko saiakera egin ohi dutenak. Baina familia euskaldunen premian dira.

Eskaintza zabala bada ere, aipatzen da Ulibarri eta Urrats euskaltegiek antolatu eta HABEk sustatu eta diruz lagundutako ekimena. Ikasleak jasotzeko familiak behar dira. Trukean, familia bakoitzak 570 euro jasoko ditu. Izena emateko epea apirilaren

18an amaituko da. Programa honen bidez, euskara ikasten edo hobetu nahian, nahiz bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilen pertsonari familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera emango zaio (uztailean, abuztuan edo irailean).

Aldi berean, herri euskaldunen bizi-modua eta ohiturak ezagutzeko parada ere izango du ikasleak.

Bi ardatz nagusi ditu ekimen honek:

-Familia euskaldunak.

-Ikasleak.

Ikasleei amaitu zaie izena emateko epea. Familiek, aldiz, apirilaren 18a bitarteko epea dute.

Familiak bete beharreko baldintzak

- Egonaldiak hilabetekoak izango dira gutxienez, eta hilabete bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izango da.
- Ikasleak 18 urtetik gorakoak izango dira.
- Egonaldia eskaintzen den hilabetean etxean, gutxienez, hiru lagunek bizi beharko dute.
- Ikaslearentzako logela bat libre izan beharko du.
- Familiak honek truke, 570 euro jasoko du hilabete bakoitzeko.

Izena emateko epea: 2004ko apirilaren 18an amaituko da.

Informazio gehiago: Udaletxeko Euskara Zerbitzuan.

Telefono zenbakia: 943 37 19 51

Web orrialdea: www.egonaldiak.net

UDALEKUETARA JOATEKO DEIALDIA EGIN DU ZIORTZAK

Aurtengo ikasturte amaieran, Kanpaldia egiteko asmoa du Ziortza Gazte Elkarteak. Beti bezala, Errioxako Peñaloscintos herrian izango litzateke eta jada prestaketa lanean ari dira Ziortzakoak. Komenigarria litzateke kanpaldira joateko asmoa duenak taldeko begiraleari jakin araziko balio. "Animatu bai zu eta baita inguruan dituzun zure lagunak ere, denon artean zuek nahi duzuen kanpaldia egingo baitugu", adierazi digute Ziortza Gazte Elkarteako begiraleek.



ARANTZAZUKO MARTXA

Arantzazuko Martxa apirilaren 3an egingo da aurtengoa. Gotzaindegiak jakinarazi duenez, Usurbildik ere izango da autobusik. Parrokian jasoko duzu informazio gehiago.

Gaikako billketa egiteko hitzordu berria, apirilaren 7an

Furgoneta berezi bat dabil San Markos Mankomunitateko hamar udalerrietan zehar, sortzen ditugun zenbait hondakin bereziak bilduz. Jasotzen diren hondakin gehienak gai toxikoak dituztenez, ingurumenean eragin ditzaketen kalteak sahistu ditzakegu eta birziklatzen lagundu dezakegu.

Zer biltzen da? Sukaldeko olioak, pintura eta disolbatzaileak, erradiografiak, pilak, bateriak, automobiletako olioak, termometroak, aerosol toxikoak (intsektizidak, lakak...), lanparak eta fluoreszenteak, produktu kimikoak dituzten

garbikariak (amoniakoa, aguarrasa...), telefono mugikorrek, kartutxoak eta tonerrak, oihalak.

Hondakinak bereiztuta eraman behar dira furgonetara. Hilabeteko lehen asteazkenean pasa ohi da. Apirilaren 7an, beraz, ordutegi honetan hurbilduko da gure artera:

- Kaxkoan, hileko hirugarren asteazkenean. 9:00 - 11:00.

- Auzoetan, hileko hirugarren asteazkenean. 11:00 - 13:00.

Urbil merkataritza gunean, aldiz, hileko laugarren larunbatean. 11:00-14:00 / 15:00-19:30.



HONDAKINAK BEREIZTUTA ERAMAN
BEHAR DIRA.

Berritua dator Santixabel Pilota Txapelketa

Hasi da txapelketarik maitatuena, Santixabel Pilota Txapeleketa. Aurten jubiletan 31 bikote lehiatuko dira; nagusietan, berriz, 60. Irabazleen izenak Santixabeletan ezagutuko ditugu. Bien bitartean, pilota saio ederrekin gozatzeko aukera izango dugu Aginagan zein herriko pilotalekuetan. Enrike Huizi antolatzaileak eman dizkigu txapelketaren inguruko xehetasun nagusiak.

NOAUA. Aurtengo txapelketa irekia izango da, ezta?

Enrike Huizi. Usurbilen betidanik egin da txapelketa irekia. Azken bi urteetan bikote gutxirekin egin da (eta hauek aukeratuak, "gonbidapen" txapelketak izan direlarik) aldagarik gabe geundelako.

Aurten, bi pilotaleku izanda, horrenbeste bikotek parte hartzeko aukera dago.

Gonbidapena bidez, pilotari asko geratzen dira parte hartu gabe, eta denek nahi dute jokatu.

Egia da txapelketa irekiak askoz ere lan gehiago ematen duela, baina xede nagusia parte hartzeko aukera ahalik eta pilotari gehienei eskaintzea da.

Maila altuko txapelketa

Baina era berean, txapelketaren maila hobea izango da.

E. H. Antzekoa. Azken bi urteetan, gonbidapen bidez etorri direnez, maila altua izan da. Aurten, maila antzekoa da, baina bestela etorriko ez lirakeen pilotari on asko etorriko dira, eta oso ezagunak ez diren, baina maila oso ona duten pilotari gazteak ezagutzeko aukera izango dugu.

Miarritzetik zein Burlatatik datoz pilotariak. Hain erakargarri egin al duzue txapelketa?

E. H. Euskal Herri osoko pilotariak partidak jokatzen gogoz daude.



AGINAGARA ERE IRITSIKO DA SANTIXABEL PILOTA TXAPELKETAREN DIHARTZUNA.

Gainera Usurbila oso gustora etortzen dira beti (pilotalekuaren kokapena egokia baita, giro polita dagoelako plazan...). Txapelketa irekia egiteko, normalean, egunkarietan izen-emate epea ezagutarazten da, eta nahi duenak ematen du izena. Guk aurten egin duguna hauxe izan da:

ENRIKE HUIZI:
"Nafarroa, Araba eta
Miarritzeko elkarteei ere
helerazi diegu gonbidapena"

Bikote gehiegik izena eman ez dezan (bestela Santixabeletako bukatzea ezinezkoa izango litzateke), Gipuzkoako elkarte guztiakin kunplitu dugu. Nola? Maila bakoitzean (jubenilak eta nagusiak) bikote batek parte hartzeko aukera emanda. Horrela herrialdeko elkarte guztiak eman diegu aukera. Esan behar da salbuespenak egon direla arrazoi ezberdinengatik: Añorga, Hernani, Oiartzun... (bailarakoak direnez, eta pilotari askotxo dituztenez, herri hauek gehiago etorriko dira).

Behin Gipuzkoako bikoteak izena

emanda, Nafarroako, Arabako eta Miarritzeko elkarteei pasa diegu gonbidapena.

Sariak politikak dira, baina lehenengo lau sailkatuentzat bakarrik (nagusietan, laugarren postutik zortzigarreneira afora bana eman ohi zaie normalean).

Errifak, diru-iturri nagusia

Laguntza bereziren bat jaso al duzue?

E. H. Saiatzen gara txapelketa autofinantzatzen. Nola? Errifak dira diru iturri handiena. Udalak dirulaguntza ematen digu. Tabernak sarientzako ematen digutena ere aipatu beharra dago: Bordatxo, Benta, Txiriboga, Aitzaga, Antxeta eta Arruti Harategia.

Halere ez ahaztu sagardotegiek ematen diguten laguntza: Araeta, Aginaga, Aialde-Berri eta Saizar.

Kaxkoan ez ezik, Aginagan ere partida asko jokatuko dira. Probetxua ateratzen hasi zarete, baina jendeak erantzuten al du?

E. H. Pixkanaka jendea ari da bertaritzen. Bai bertakoa eta baita herrikoa ere. Halere, eguraldi onarekin, kaxkoan dagoen giroa ez da konparagarria.

Kiroldegian bilera dute Areto Futbol Txapelketan izena eman duten taldeek

Izena emateko epea martxoaren 31n amaitu zen. Txapelketako lehen partidak, beraz, laster hasiko dira. Egutegiaz hitz egiteko bilera antolatu du Usurbilgo Futbol Taldeko antolaketa batzordeak. Bilera kiroldegian izango da, apirilaren 3an, arratsaldeko 17:00etan.

Usurbilgo Futbol Taldeak bigarren urtez jarraian areto futbol txapelketa

antolatu du. Apirilean hasiko da txapelketa baina izena emateko epea, martxoaren 31n bukatu zen. Bi kategoria izango dira: mutilak (1998. urtea baino lehen jaiotakoak) eta neskak (13 urtetik gorakoak).

Santixabeletan amaituko da txapelketa hau. Partidak larunbat arratsaldetan eta igande goizetan jokatu dira Oiardo Kiroldegian. Jokalariak bertan duxatu ahal izango dira.



SASKIBALOI ENTRENATZAILE IZATEKO IKASTAROA

Gipuzkoako Saskibaloia Federazioa eta Buruntzaldeko Udalen ekimenez, saskibaloia entrenatzaile izateko ikastaroa antolatu da Lasarte-Orian.

Ikastaroan apirilaren 19an hasiko da eta bi asteko iraupena izango du. Egutegian, astelehene ostiralera, 18.30etatik 21.30etara Lasarte-Oriako kiroldegian. Baina adi egon, izen emateko epea apirilaren 2an amaituko baita. Inskripzio-ordria Oiardo Kiroldegian bete daiteke. Interesatuaren datuekin batera, 120 euroko ordainagiria eraman beharko da.

USURBIL FTKO NESKAK, KOPAN

Kopa jokatzen ari dira Usurbilgo Futbol Taldeko neskak. Asteburu honetan kanpoan arituko dira, Berioko Luberri KEren zelaian.



IRUDIAN, IAZKO BI TALDE GARAILEAK.

ARGAZKIA: JOSU ARANBARRI

Knk l
 - L ntz r
 - Gz n zk n rr p
 ll ur ntz k
 - Fix r k h r
 luzzan k
 Zubiaurrena, 3 33 17 7


ZUMET MENU K
 (Gutx n z 21 un ncz t)
 - Etx k h t f - r n s t
 l u r r z
 - Its sk nts l h z r truf z r z
 - Z ux n ur z t r k s s k
 s lts z
 - s z m u t ur, n t kl
 r r z h r s lts t n
 - Etx k z k n wruk n st n
 - t k f
 Tx k 1, 11, 3 27 13 r z 27, 5 ur (rts n k)

ARRAINDEGIA PELLO
 xKI /
 T13 21
 JGU L

MIKEL IZ GI E
ELEKT RIT TE
 " u e , 7
 R le
 el " - " " 111

Zure publizitatea **Noaua!**-an agertzea nahi baduzu jar zaitez gurekin kontaktuan:
 943 360 321 telefonora edota 679 471 831 mobilera deituz. Korreo elektronikoz ere egin dezakezue: publizitatea@noaua.com

M N CENILL
 k r - n t u r i
 t l l n k
 r z t l z - l u k
 n t u r - l u k r h r
 Arisitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
 MOBILA: 629 46 09 66



Guillermo eta futboleko arbitroak

Kaixo:

Ni Guillermo naiz eta bostgarren mailan nago. Futbola asko gustatzen zait eta orain errealzale egin naiz.

Orainarte Madrilen bizi izan naiz eta han, arbitroei buruz esaten dena esplikatzen nahi dizuet:

Jende askok esaten du ordainduta daudela, baina ez da egia; hori ez da gertatzen. Gertatzen dena da beste arbitroek beldurra dietela Real Madrilekoei eta ez direla ausartzen faltak markatzen.


Orain adibide bat jarriko dizuet:

Orain dela gutxi, arbitroak Zidane-i txartel gorria erakutsi zion eta Valdano aldageletara jaitsi zen eta arbitroa honela mehatxatu zuen:

“ZIRI EDERRA SARTUKO DIZUT”

Horregatik beldurtzen dira arbitroak.

ARBITROAREN LABERINTOIA
NONDIK JOAN DA ARBITROA
TXILIBITOAREN BILA?



Har ezazu parte “Gipuzkoa Zure Esku” mahai-jokoaren zozketan

Mahai-joko interesgarri hau udazkenean argitaratu zuen Elhuyar Fundazioak. Orain hasi eta ekaina bitartean, hilean behin mahai-joko hauetako bat zozketatuko dugu NOAUA! aldizkariko irakurleen artean. Nola hartu parte? Hilero, galdera bat egingo dugu. E-postaz jasotzen ditugun erantzun guztien artean, zozketa bat egingo dugu. Animo!

Elhuyar edizioak argitaratu du “Gipuzkoa zure esku” izeneko mahai-jokoa. Funtsean, gazteei zuzenduriko jokoa da, aisialdian euskaraz aritzeko Elhuyar Fundazioak egin nahi digun eskaintza paregabea. Mahai-joko honek (CD Rom batekin ere osatzen dena) bi ardatz nagusi ditu:


- “Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzaiileen aurka”. Gipuzkoako hainbat herri zeharkatzen dituen abentura grafikoa da.

- “Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa”, mahai-jokoa.

Argitalpen didaktiko eta atsegin honi esker, jolasean arituz, Gipuzkoaren nondik norakoak ezagutuko ditu jokalariek. Bakarrik ordenagailuan, nahiz familiarekin edo lagunekin jolasteaz gain, joko honek Gipuzkoako herriak, historia, kultura, ingurunea, ohiturak eta abar ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Hilero joko bat zozketatuko dugu

Galdera bat egingo dugu eta erantzun egokia bidaltzen ditugun artean mahai joko bat zozketatuko dugu. Erantzunak



soilik e-postaz jasoko ditugu: erredakzioa@noaua.com. Datorren alean jakinaraziko dugu apirileko irabazlearen izena.

Aurreko hilabeteko irabazlea: Haritz Lizarralde, zorionak!
Pasa zaitetz sari bila NOAUA!ko bulegotik.

HILABETEKO HONETAKO GALDERA
Zein herritan kokatzen da Elhuyar fundazioa?
Erantzuna: _____ (erredakzioa@noaua.com helbidera bidali)

NOAUA!ko LEHIAKETA!!

Bi galdera hauek ondo erantzuten badituzue sari eder honetaz gozatzeko aukera izango duzue! ANIMATU!!!



SARJA



EUSKARAZKO MAHAI JOLASA

"Gazteak lagunartean nabiz famili giroan jolastuz ikasteko eta dibertitzeko, juntzio ludikoa eta aldi berean pedagogikoa duen euskarazko tribiala da."

EUSKARAZ ONDO IDAZTEKO IDATZI BILDUMA LIBURUXKA

"Gonbitak, zurioren agurrak, doluminak ematea, eskolako idatziak, erreklamazioak,... euskaraz nola idatzi behar den erakutsiko dizu."

ZAZPIAK BATMAN KAMISETA ZORAGARRIA

ARGIA-ren "FREESKUE" UMOREZKO LIBURUXKA

Erantzunak bidaltzeko azken eguna **APIRIAK 11**

Noaua! hamalioskaria, Beldarceñi 3 Eguzkitzaklea,
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Noaua! Kultur Elkarteko buzoian

F. maila: erreteakzioa@noaus.com

1. Not da "El Libro Negro del Euskera" liburu ezagunaren egilea?

- a) JOAN MARI TORREALDAI b) JOXE RAMON ZUBIMENDI
c) JOSANTON ARTZE

2. Lita egilea nor den baldin badakizu, esango al diguzu zein urtetan jaio zen?

- a) 1939 b) 1942 c) 1944

178. lehiaketako erantzunak hauek dira:

1. Euskaraz dakiena, euskaraz mintzatzen duenari nola deitzen zaio? **EUSKALDUNA**

2. Euskara eta oro har, euskal kulturarekiko zaletasuna duenari nola deitzen zaio? **EUSKALTZALEA**

Irabazlea: **ALEX JAUREGI PEREZ**

(Lasarte) izan da. Euskal lau idazle hauek liburu sorta hau irabazi duzu. Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan. **ZORIONAK!**



Egilea: LUMA, O.E.

	Kimikan adituak	▼	Ez ahal	▼	Emakume izena	▼	Bururatu	▼	Noren atzizkia
	HERRIKO KALEA		Zoritxarrez		Auto pilaketa		Kontinente bat		
	▶	▼		▼		▼		▼	
	Amodio	▶							
	Barik								
Hondo handikoak	Kirol mota	▶	▼						Armeniako mendia
Musika tresna	Röntgen								
▶		▼			Erritmo mota	▶			Bokala
					Bokala				Emea gurasoekiko
Potasioa	Laztan	▶							Ez eme
Ahalmen	Interjekzioa								Barazki mota
▶		▼			Inbutua	▶			
					Oinarritzko edaria				
Naizen hau	Beldurra	▶					Sobera	▶	
Infin., barkatu	Modu atzizkia						Boroa		
▶		▼			Kontsonantea	▶			
					Urania		Barazki mota	▶	
							Kontsonantea	▼	
Ergelak		▶					Norat atzizkia	▶	

Usurbilgo kalea

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero
* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Goardiako farmaziak

Apirilak 2, ostirala

E: Gil, Nagusia 24 Lasarte
G: Ansa, Ondarreta 8 Andoain

Apirilak 3, larunbata

E: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
E/G: De Migel, Nagusia 32 Lasarte

Apirilak 4, igandea

E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Apirilak 5, astelehena

E: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
G: Arzallus, Larramendi 16 Andoain

Apirilak 6, asteartea

E: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19 Andoain

Apirilak 7, asteazkena

E: De Miguel, Nagusia32 Lasarte
G: Elizondo, Zumea 20 Andoain

Apirilak 8, osteguna

E: Acha-Orbea, Hipodromoa, 6 Lasarte
G: Gomez, Nagusia 14 Hernani

Apirilak 9, ostirala

E: Acha-Orbea, Hipodromoa, 6 Lasarte
G: Gomez, Nagusia 14 Hernani

Apirilak 10, larunbata

E: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte
/ Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

G: Ansa, Ondarreta 8 Andoain

Apirilak 11, igandea

E: Acha-Orbea, Hipodromoa, 6 Lasarte
G: Ansa, Ondarreta 8 Andoain

Apirilak 12, astelehena

E/G: Acha-Orbea, Hipodromoa 6 Lasarte

Apirilak 13, asteartea

E/G: Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Apirilak 14, asteazkena

E/G: Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Apirilak 15, osteguna

E/G: De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Apirilak 16, ostirala

E/G: Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Apirilak 17, larunbata

E: Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte

Apirilak 18, igandea

E/G: Gil, Nagusia 24 Lasarte

E:Egunez G:Gauzez E/G:Egunez eta gauzez

2004ko egutegi osoa noaua.com helbidean

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40	09.05	09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25		09.30	09.35	10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40	13.05	13.25		10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40	14.05	14.25		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40	15.05	15.25		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40	16.05	16.25		14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40	17.05	17.25		15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40	18.05	18.25			16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05	17.15	17.40
18.00	18.25	18.35	18.55	17.45	18.05		18.30
18.40	19.05	19.25		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.20	19.25**		18.45	19.05		19.30
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05	19.15	19.40
19.40	20.05	20.25			19.30	19.35	20.00
20.00	20.20	20.30		19.45	20.05		20.30
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.20	21.25	21.45	20.45	21.05	21.15	21.40
21.00	21.25	21.35	21.55	21.15	21.35	21.40	22.00
22.15	22.35	22.45	23.05	21.45	22.05	22.15	22.40
22.00	22.25	22.35	22.55		23.15	23.35	00.00
22.30	22.55	23.05	23.25	01.15	01.35		02.00
00:00	00.25	00.45		03.15	03.35		04.00
02:00	02.25	02.45		05.15	05.35		06.00
04.00	04.25	04.45					
06.00	06.25	06.45					

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

*Aiatic dator Asteburutan
 Soilik Larunbat lanegunetan

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* /9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Apirila

As.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) 36 38 95
- Oiardo kiroldedia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkartea..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen, konpartitzeko. 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 902762.
- Pisua alokatu edo konpartitu nahi nuke. 647 973 844.
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian: 30 m-koa, 18.000 euro. 15 m-koa, 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.
- Citroen Saxo gorria salgai. 60.000 km, 7 urte. Garajea zaindua, motorra eta txapa egoera oso onean. 943 36 56 10.
- NITRO markako snoweko fijazioak dauzkat salgai, prezio interesgarria. Interesatuak deitu 653728059 telefonora.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. 943 37 10 32.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei ieza dazu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsalde z b orduz. 647 220 966 (Mari Karmen).
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean, Deitu hona: 652 757 495.

Lan-eskaintzak

- Martxan jartzeko prest dagoen kopiagintza eta grafika zerbitzuetako negozio batetara-

ko sozioak behar dira (neskak nahiago dira). Interesatuak deitu Tf: 687470177.

- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ume baten txamarra gorri bat galdu da Kaxkoan. Aurkitu baduzu deitu: 943360659
- Otsailaren 26an kolpea eman zidaten kotxean, Bordaberri Kalea eta Artzabalgo etxean artean aparkatuta zegoen Renault Espace berdean. Argibiderik baduzu deitu ieza dazuzu mesedez: 943 36 32 90.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Kaxkoan. Topatu baduzu deitu 943 360643 telefono zenbakira.
- Duela gutxi koilarea galdu nuen Iturralde botikatik kaxkora bidean. Topatu baduzu deitu 943 36 11 15 telefono zenbakira.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean egin ahaztu genuen. Topatu baduzu deitu: 943 37 20 34.
- Urrezko pultsera bat galdu nuen Munalurra auzoan (Olarrondo inguruan). Topatu baduzu deitu: 943 36 27 79.
- Zilarrezko brotze bat galdu nuen San Esteban kaletik, okindegia eta supermerkatu bidean. Topatu baduzue deitu 943371237 telefonora.

- Neska bat eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 943364659 telefono zenbakira. (Arantxa)

- Mobiestar telefono mugikor bat aurkitu dut Zubietan Etxetxo Lorategiaren inguruan. Galdu duenak dei dezala 943 36 68 56 telefonora.

Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

NOAUA! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
eredakzioa@noaua.com

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak Maria!

4 urte egingo dituzu apirilaren 2an. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Sandraren partez.



JAIOTZAK

- **Claudia Izagirre Iturri**
2004ko martxoaren 8a.
- **Udane Makazaga Estella**
2004ko martxoaren 26a.

HERIOTZAK

Isabel Torres Galindo

2004ko martxoaren 10ean hil zen, 88 urte zituela.
Kaleberri



HERIOTZAK

Jose Antonio Izagirre Alkorta

2004ko martxoaren 17an hil zen, 51 urte zituela. Kaleberri.



HERIOTZAK

Maria Rosario Elizegi

2004ko martxoaren 18an hil zen, 89 urte zituela. Kaleberri.



HERIOTZAK

Miguel Carranza Calleja

2004ko martxoaren 17an hil zen.

* Usurbilgo Bake Epaitegiko datuak.

N • I
Il n
MIST
S l r un, l z ,
m k ! t m n kur
Zu urr n , 5 - 33 1 51

Urtinea
I r k - I r l n r k
L r s r l k - K r k
San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Olindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Ganbarra
Opri, jartzeak, atxeko tresneria
5,70 euro
serigrafia
Muzes lane 4 - Usurbil Tlf: 943 36 56 49

OSU S.L.
Tampografia serigrafia
Tlf: 943 371 954 Fax: 349 376 551

BORDATXO
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ITURGINTZA
J SE
NGU EN
Tlf: 3 3 72

Agenda !

APIRILAK 3, LARUNBATA

- Areta Futbol Txapelketako bilera. 17:00etatik aurrera, Oiarde Kiroldegian.
- Zubietako Eskola Txikian, 17:00etan, errauste-plantaren inguruko bilera.

APIRILAK 7, ASTEAZKENA

- Gaikako bilketa egiteko hitzordua. Kaxkoan, goizeko 9:00etatik 11:00etara. Auzoetan, 11:00etatik 13:00era.

APIRILAK 24, LARUNBATA

-NOAUA!ko Batzar Orokorra, Udarregi Ikastolako gela batean. 18:30etatik aurrera.
- "Zazpi gezur txiki" antzezlanaren Udarregi Ikastolako aretoan. 22:30etan. Sarrera doan. Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkarte, Usurbilgo Udala, Kutxa.

Soluzioa !

	*	K	*	E	*	I	*	O	*		
	A	I	T	Z	A	Z	A	T	E		
	*	M	A	I	T	A	S	U	N		
*	S	*	G	I	M	N	A	S	I	A	*
M	A	R	A	K	A	*	S	K	A	*	A
*	K	*	B	A	L	A	K	U	*	A	R
B	O	T	E	R	E	*	O	N	I	L	A
*	N	I	*	I	Z	U	A	*	L	A	R
B	A	R	N	A	*	R	*	B	A	B	A
*	K	A	I	K	U	A	K	*	R	A	T

Soluzioa: AITZAZATE

Musikaren txokoa !



Imuntzo eta Beloki, Urolara begira

Erromeri eta trikiti munduan aurkezpenik behar ez duen bikoteak Urolako trikiti pieza zaharren bilduma osatu du. Urolako zenbait trikitalari historikok sortutako piezak bere garaian berezkoa zen moldean jo eta bat-batekotasuna mantendu



nahi izan dute, eta baita lortu ere.

Trikiti eta panderoaz gain hain ohizkoak ez diren musika tresnak sartu dituzte: botila, trikitiaren maleta, tinbalen kaxa...

Guztira 23 abesti fresko eta dantzagarri, erromeriazaleen gozameneko.

Egin kontu !

Aste Santuan, KzGunea itxita

Aste Santua dela eta, Usurbilgo KzGunea itxita izango da apirilaren 8an, 9an eta 12an. Oporren bueltan izango diren ikastaro esan-guratsuenak, hauexek:

Oinarrizko Internet (20 ordu)

Apirilak 13-26. Goizean, 9:00-11:00.

Apirilak 13-26. Arratsean, 16:00-18:00.

Nagusiweb (10 ordu)

Apirilak 27-maiatzak 3. Goizean, 9:00-11:00.

IT Txartela

Apirilak 23. Arratsean, 18:00-20:00.



AZKEN IKASTAROKO IKASLEAK.

L T I L L E

ITU GINTZ G SET E GINTZ INST L KUNTZ K

17.TTTX K I.F. .
E.H.F

(3) 3 2 35-3 33
M I 21

Ingurutzia - Gasa - Berokutza



Bizkarra 1, 1.esk.

37 29 37 - 659 602789

Menuak astean zehar eta

ZENDOIA

taberna

Kale Nagusia 35
Tel. 943374021

asteburutan menu bereziak

txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Tel: 943 36 04 66

PATRI

JATEETXEA

- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitarteak

Tel: 943 36 27 25

Kale Nagusia, 14

Madrilgo legebiltzarrerako maiatzak 14ko
hauteskundeetan, **EAJ-PNV** izan da Usurbilen
alderdi politiko bozkatuena, **836** botuekin.

Hori dela eta Usurbilgo **EAJ-PNV**k, eskerrak
eman nahi dizkie gure alderdiarengan
konfidantza jarritz beraien bozka gure
alde egin duten Usurbildar guztiei.



EAJ
PNV

EGIN TXOTX!

GURE HERRIKO

SAGARDOTEGIETAN



Araeta



Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera!

Tel: 943 36 20 49 - 943 36 66 04

Faxa: 943 36 60 73

Arbitzabidea 20.160 ZUBIETA

www.araeta.com

Zain duzu burtergo sagardoa. Txotx!



SAIZAR

Sagardotegia

Kalezar Zubietan

ZUBIETA
CRIPUZKOA

Tel. 943 362 228

www.sidrasaizar.com

TXOTKETIK

eta botiletan
salgai

Urte guztian egunero irekita
astelehenetan ezik.

AGINAGA

SAGARDOTEGIA



Tel: 943 36 67 10 - 37 06 68 AGINAGA

ASTIAZARAN

SAGARDOTEGIA



Zubieta, tel: 943 36 12 29

*Irudi berri bat
denboraldi berri batentzako*

-Igande gauetan itxita

Egin txotx!